



Asteak, hilabeteak...Urteak daramatzate euskalgintzako eta hezkuntza munduko eragileek, eskola ereduak gaindituko dituen legearen zain. Orain dela aste batzuk Tontxu Camposek eskola euskaldunduko ez duen legea aurkeztu zuen. Lege honek hezkuntza eta euskalgintzako hainbat eragileren haserrea sortu du, suposatzen duen iruzurra dela eta.

"Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena"k (IA, EHE, EHBE eta SORTZEN IKASBATUAZ) Abenduaren 17an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan mobilizazio egun bat egitea erabaki du, iruzur berriaren atarian, euskaldunduko duen eskola eredu berria aldarrikatu eta euskalduntzeari ateak itxiko lizkiokeen iruzurrari ateak ixteko.

Plataformako kideen esanetan, "Aski da esateko momentua iritsi da! Isabel Celaak euskara erasotu, Iñigo Urkulluk aitzakiak jarri eta Tontxu Camposek bie men egin eta hizkuntza eskubideetan ez atzera ez aurrera geratu da". Euren esanetan, lege berriarekin iruzurra 2025era luzatuko dute gutxienez, beste 20 urtetan zehar odolustea baimenduz eta hizkuntza eskubideak urratuz".

iruzurraren legeari **eskolak euskaldundu behar du!**

Tontxu Camposek Iruzurarren Legea aurkeztu berri du. Lege berriaren arabera, eskolaren bakoitzeko ikasle bakoitzari eskolaren bakoitzari 107.768 herriko langile bakoitzari eskatu genionari muzin egin dio.

Legeak sartuko dituen aldaketak aipatzea erraza da, horiekin batera. Dena aldatzen du ezer ere ez alda ez dadin. Hona hemen puntu garrantitsuenak:

- Ez du irakasle profil zehatzik aipatzen kontratazioan.
- Ez du ikasleek lortu behar duten euskara maila zein den zehatzki aipatzen.
- 15 urte pasa beharko dira porrota ikusi eta ebaluatu arte.
- Eskolen %52a baino ez da euskaraz izan behar.
- Ez da IRALE programa berririk zehazten.
- Nahi duten ikastetxeek ez dute zertan bete behar, ez baina legea betetzeko biderik.

HAU GUZTIAGATIK, iruzurra salatzen, Eskolak Euskalduntzeko Herri Ekimenak mobilizazio eguna deitu du datorren Abenduaren 17rako. Mobiliza zaitez!

